

## Euskararen hiztun-taldeak Euskal Autonomi Elkarte

Jakina denez hizkuntz egoeraren diagnosirako abiapuntu eta oinarria Udal-Erroldak damaizkigun datuetan dautza. Zenbat euskaldun, haien banaketa, euskara jakite-maila,... ezinbesteko datutzat jotzen ditugu, bereziki erabilpena neurtu edo kudeatu nahi dugunean. Hau da, euskararen erabilpena handia edo txikia izan daiteke baina beti eta beti ere hiztun-kopuru teoriko jakinaren arabera.

Aldez aurretik *hiztun-talde* horiek zeintzuk diren jakiteko instituzioek proposatzen eta erabiltzen dituztenak aurkeztuko dizkizuegu:

*Euskaldunak:* Euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten

«Euskararen  
berreskurapenaz  
mintzatzerik  
balego, 30/34  
urteko  
adinekoengandik  
aurrera ematen  
da. Guk,  
Hezkuntza  
formalaren  
eragina  
antzerian  
daitekeela  
esango genuke»

dutenak. Haien artean alfabetatuak, partzialki alfabetatuak eta alfabetatugabeak bereiz daitezke.

*la-euskaldunak:* Euskaraz ondo edo nekez ulertuagatik hitz egiten ez dutenak. Alfabetatu, alfabetatu gabe eta pasibo deritzen kategoriatan bana daitezke.

*Erdaldunak:* Euskaraz ez ulertu eta ez hitz egiten duten pertsonak<sup>1</sup>.

Geroxeago agertuko ditugun datuetan oso inportantea da jakitea noiz eta nola lortu ziren. 'Adinaren' aldagaiak berebiziko garrantzia duelakoan zehazkizun bat egin behar dugu, adina ez dela gaur egungoa, 1985eko Abendukoa baizik, horrexegatik adin-taldeen azterketa egitean kontutan hartu behar dugu subjektuek bost urte gehiago daukatela.


Esanak esan, ondorengo taulan *hiztun-taldeen* zenbait banaketa adin-taldeka agertzen zaizue. Hor zenbakitan *hiztun-talde* bakoitzak duen pisua antzerian daiteke, baita alfabetatugaiak eta euskaldungaien kopuruak ere. Behin datuak eman eta gero horien azaleko azterketari ekingo diogu.

I.TAULA: EUSKALDUNGOA

Datu-iturburua: (1989) Hezkuntza eta Euskara. EUSTAT. Gasteiz, 103. or.

ADIN-TALDE	EUSKALDUNGOA		C %	Populazio adin-taldeka	
	Orotara	Alf./gaiak		euskaldun	%
5/9	47.091	16.131	34'25	28'97	
10-14	48.210	4.665	9'68	26'24	
15-19	42.283	5.634	13'32	23'25	
20-24	42.949	8.822	20'54	23'40	
25-29	39.005	10.733	27'52	22'87	
30-34	31.567	10.987	34'81	20'89	
35-39	31.740	12.101	38'13	21'10	
40-44	27.703	11.394	41'13	20'64	
45-49	24.875	11.288	45'38	21'05	
50-54	31.352	15.354	48'97	22'87	
55-59	31.557	16.404	51'98	25'43	

ADIN-TALDE BAKOITZARI DAGOKION EUSKALDUNGOAREN BANAKETA EHUNEKOTAN. ADIERAZPEN GRAFIKOA. (I.)



Azkenengo zutabetik hasita zera ikusten dugu, euskaldungoa ez dela ailegatzten inongo adin-taldetan % 30a izatera eta pisurik txikienak 40/44 (20,64) eta 30/34 (20,89) adin-taldeetan lortzen duela. Hortaz inflexio-puntua hor ematen dela esan dezakegu, hau da, euskararen berreskurapenaz mintzatzetik balego, 30/34 urteko adinekoengandik aurrera ematen da. Guk, Hezkuntza formalaren eragina antzeman daitekeela esango genuke.

Bigarren zutabearen (C) lehen esandakoaren baieztapena ikus dezakegu, honela hain zuzen: alfabetatugaien portzentaia handitu egiten dira 'zaharren' adin-taldee-

*«Hezkuntza  
Formala  
euskaldun  
gazteen  
alfabetatze-lanak  
bere gain  
hartzen ari dela  
esan genezake»*

*«Alfabetatugaien ehunekorik handienak helduen artean ematen diren bitartean, euskaldungaien kasuan kontrakoa da, nahiz gatzetxoenen artean aldatzeko joera somatu»*

tan, gazteenetan txikiagotzeko joera adierazten delarik. Euskaldunen portzentaia adin-talde diferenteetan antzerakoak badira ere gazteen artean alfabetatu gehiago dago, hots, kualitatiboki euskaldun 'hobeak' direlarik eskolaren eragina soma dakieke. Hezkuntza Formala euskaldun gazteen alfabetatze-lanak bere gain hartzen ari dela esan genezake, horrela 10/14 adin-taldean alfabetatugabekoen portzentaia soilik % 9'68koa izatea oso esanguratsua delakoan gaude.

Aurrekoaz gain II. TAULA horretan adin-talde bakoitzari dagozkion euskaldunen eta alfabetatugaien kopuru osoak agertzen dira. Agian lehenengo adin-taldearen datuak interpretagarriak ez direla gogorarazi behar izango genuke, izan ere edozein hizkuntzatan alfabetatzeko gaztegiak bait dira.

II. TAULA: HIZTUN-TALDEAK ADIN-TALDEKA

ADIN - TALDE	EUSKALDUNAK		A	IA-euskaldunak	ERDAL-DUNAK	EUSKAL-DUNGAIAK	B	POPULAZ adin-taldek
	Alfabetatu.	Alf./gaiak	%				%	
5/9	30.960	16.13	13'00	49.017	66.427	115.444	8'89	162.535
10-14	43.545	4.665	3'76	71.324	64.222	135.546	10'43	183.756
15-19	36.649	5.634	4'54	60.733	78.840	139.573	10'74	181.856
20-24	34.127	8.822	7'11	37.435	103.136	140.598	10'82	183.547
25-29	28.272	10.733	8'65	28.923	102.655	131.578	10'13	170.583
30-34	25.580	10.987	8'86	22.073	97.457	119.530	9'20	151.097
35-39	19.639	12.101	9'75	19.183	99.507	118.690	9'14	150.430
40-44	16.309	11.394	9'18	14.552	91.938	106.490	8'20	134.193
45-49	13.587	11.288	9'56	10.292	83.010	93.302	7'18	118.177
50-54	15.998	15.354	12'37	10.518	95.195	105.713	8'14	137.065
55-59	15.153	16.404	13'22	8.660	83.885	92.545	7'12	124.102
GUZT.	279.819	123.513		332.710	996.299	1.299.009		1.697.341

Datu-iturburua: (1989) Hezkuntza eta Euskara. EUSTAT. Gasteiz, 103. or.

'A' eta 'B' zutabeetan agertzen diren portzentaiek alfabetatugaien (A) eta euskaldungaien (B) kopuruen banaketa adin-taldeka adierazten dute. Geraxeago irudietan aztertuko dugunez batzuen eta besteen banaketa diferenteak dira. Dena den alfabetatugaien ehunekorik handienak helduen artean ematen diren bitartean, euskaldungaien kasuan kontrakoa da, nahiz gatzetxoenen artean aldatzeko joera somatu.

*Hiztun-taldeak* zein bere aldetik aztertzen baditugu sakonago eta argiago ikusiko dugu aurreko paragrafoan esandakoa. Lehenengo Euskaldungoaren azterketari lotuko gatzaizkio eta, horien artean alfabetatugaiak izan daitezkeenak zehaztuko ditugu, zenbat diren, nola banatzen diren eta adin-talde bakoitzean duten pisua alegia.

*la-euskaldungoa* deritzan taldeari buruz zalantza asko egonagatik gauza bat argi dago, talde honek aldaketa adierazten duela. Talde honetan sartzen direnek ezin iraun dezakete luzaro, edo euskalduntzen dira edo dakiten euskara-apurra galtzen dute. Gure aburuz gaztetxoan artean ia-euskaldunak euskararentzat irabaziak izan daitezke baina zaharrenean artean ostera, galerak. Badaezpada orain artean egin dugun bezala honetan datuak eta adierazpide grafikoa ondorengo orrialdean ikus ditzakezue.


«*la-euskaldungoa deritzan taldeari buruz zalantza asko egonagatik gauza bat argi dago: gure aburuz gaztetxoan artean ia-euskaldunak euskararentzat irabaziak izan daitezke baina zaharrenean artean ostera, galerak*»

III. TAULA: IA-EUSKALDUNGOA

ADIN-TALDE	IA-EUSKAL-DUNAK	ERDAL-DUNAK	PORTZENTAIK ia-eusk. banaketa	adin-taldekako ia-euskaldunak
5-9	49.017	66.427	8'89	30'16
10-14	71.324	64.222	10'43	38'82
15-19	60.733	78.840	10'74	33'40
20-24	37.435	103.136	10'82	20'40
25-29	28.923	102.655	10'13	16'96
30-34	22.073	97.457	9'20	14'61
35-39	19.183	99.507	9'14	12'75
40-44	14.552	91.938	9'17	10'84
45-49	10.292	83.010	7'18	8'71
50-54	10.518	95.195	8'14	7'67
55-59	8.660	83.885	7'12	6'98
GUZT.	332.710	996.299	100'00	

Datu-iturburua: (1989) Hezkuntza eta Euskara. EUSTAT. Gasteiz, 103. or.

ADIN-TALDE BAKOITZARI DAGOKION  
IA-EUSKALDUNEN BANAKETA EHUNEKOTAN.  
ADIERAZPEN GRAFIKOA. (II.)



«Elebidun  
Berantiarren  
artean nahiko  
zaila izaten da  
jatorrizko  
hiztunaren  
mailara  
ailegatzea»

Azkenik eta besterik ezean erdalduneei (euskaldungai) dagozkien datuak dakarzkizuegu. Datuak datu eta kasu honetan berez esanguratsuak direlakoan ez zaigu egokia iruditu bertan adierazpide grafikoa sartzea.

IV. TAULA: EUSKALDUNGAIK ADIN-TALDEKAKO (POPULAZIO OSOA) Datu-iturburu: (1989) Hezkuntza eta Euskara. EUSTAT. Gasteiz, 103. or.

ADIN -	POPULAZIO OSOA		
TALDE	orotara	Euskaldungaiak	%
5/9	162.535	115.444	71'03
10-14	183.756	135.546	73'76
15-19	181.856	139.573	76'75
20-24	183.547	140.598	76'60
25-29	170.583	131.578	77'13
30-34	151.097	119.530	79'11
35-39	150.430	118.690	78'90
40-44	134.193	106.490	79'36
45-49	118.177	93.302	78'95
50-54	137.065	105.713	77'13
55-59	124.102	92.545	74'57

Horrenbeste datu eta zenbaki agertzea irakurtzeko astuna bada ere interesgarria iruditu zaigu. Are gehiago, emaniko datuak kontutan hartu behar izango dira ondorengo interpretazioetan. Dena den orain arte erabili dugun sailkapen horri berriro lotuko gatzaizkio. Kontutan hartuz 1981eko eta 1986eko Udal Erroldatan behaturiko portzentaia horiei dagozkiela horrela agertuko dugu:

V. TAULA: HIZTUNEN BANAKETA OROKORRA

	UDAL ERROLDA urtea	1981	1986
1	euskaldunak	21'57	24'66
2	ia-euskaldunak	14'45	17'49
3	erdaldunak	63'98	57'86

Hori horrela, 5 urte horietan euskarak aurrera jo duela edozeinek esango luke. Are gehiago, zenbaitek esan baino aldarrikatu ere egin digu. Dena den, ez dugu uste datu horietatik horren interpretazio sinplea egin daitekeenik. Alde batetik neurturiko ezagutza-maila eta erabilpen errearen artean dagoen aldea handiegia delako eta, bestetik, metodologikoki akats bat baino gehiago egon daitekeelako.


Demagun datuek adierazten duten joera benetakoa dela, eta seguru asko horrela da; orduan ondorengo behaketa batean, joera bera ikusi behar izango genuke, baina ez da horrela suertatu gero adieraziko dugunez.

Joera aipatuarren tamalez ez daukagu jakiterik taldeen arteko mugimendua nolakoa izan den, hau da, ez dakigu 1986eko euskaldunak 1981eko berberak diren, 1986eko ia-euskaldunak 1981ekoak edota 1986eko erdaldunak 1981ekoak.

Agian adierazpide grafikoaz ulerkorrago suerta dakiguke; 1981etik 1986ra arteko eboluzioa honela adieraziko genuke hain zuzen:

*«Ez dakigu jakin ere 1986eko euskaldun berri horiek (% 3'09a) nondik datozen, ia-euskaldunetatik, erdaldunetatik —bost urtetan euskalduntzea posible bait da— edo jatorrizko euskaldunak diren»*

ESPERO LITEKEEN HIZTUNEN BILAKABIDEA.  
ADIERAZPIDE GRAFIKOA (III.)



«Guretzat euskaldungoa eta erdaldungoa baino ez dago, tarteko talderik ez dago; baliteke subjekturen bat edo beste euskalduntze edo erdalduntze-prozesuan izatea baina, azken finean horiek ez dute egoera horretan luze iraungo»

Hor ikus daiteke talde bakoitzak galdu eta irabazten duena joandako bost urte horietan; kontu izan norabidea guk suposatu dugula, norabide logikoena alegia. Egia esan ez dakigu jakin ere 1986eko euskaldun berri horiek (% 3'09a) nondik datozen, ia-euskaldunetatik, erdaldunetatik —bost urtetan euskalduntzea posible bait da— edo jatorrizko euskaldunak diren. Hala ere eboluziorik desiragarriena horixe izango litzatekeela edonork esango luke.

Irudian agertzen den moduan ia-euskaldungoa iragan-taldea izango litzateke, izan ere beste era batera ulertzerik ez bait dago. Berreuskalduntze-prozesuan euskalduntzen diren helduak nahitanahiez igaro behar duten taldea delako<sup>2</sup>.

Horraino beraz azkenengo Udal-Erroldek arlo horretan eman dutena. Orain *Demografiako eta Balidazioko*



*Inkesta. Erroldaren Balidazioa (1990)*<sup>3</sup> deritzan liburutik ateratako datuez baliaturik ondorengo erkaketa egin dezakegu.

VI. TAULA: HIZTUN-TALDEEN EBOLUZIOA ETA JOERA


	HIZTUNAK	BALIDAZIO INKESTA	Udal Errolda	
			1.981	1.986
1	euskaldunak	24,24	21,57	24,66
2	ia-euskald.	11,90	14,45	17,49
3	erdaldunak	63,98	63,98	57,86

Zer gertatu da? Bi urteren buruan lehen behaturiko joera horrenbeste alda daiteke edo Inkestaren datuak ez dira fidagarriak?

Gure aburuz, nahiz eta datu-bilketarako prozedura diferentea erabili ez daukagu inolako zalantzarik, batez ere laginaren tamaina kontutan hartzen badugu. Gure ustez ez da joera-aldaketarik izan, beste arazo bat delakoan gaude. Gatozen, bada, azalpen bat ematera eta lehen bezala irudi batez lagundurik.

IV. ADIERAZPEN GRAFIKOA (Demografiako eta Balidazioko Inkesta. Erroldaren Balidazioa -EUSTAT 1990- 126 or.)<sup>4</sup>.

*«Euskalduntzeaz dauden erdaldunak kontrolatzea oso interesgarria da jakina, baina horrek ez du esan nahi euskaldunak direnik, erdaldunak baino»*



- 1. EUSKALDUNAK
- 2. IA-EUSKALDUNAK
- 3. ERDALDUNAK

Kasu honetan taldeen arteko mugimenduak kontrolatuak izan dira, hots, kasu bakoitzean subjektuen norabide zehatza ezagutzen dugu. Hortan oinarriturik euskaldungoa eta erdaldungoa nahiko egonkorrak direla esan dezakegu, baita 1981eko datuei begiratuta ere.

«Haurtzaroko  
eta  
Nerabezaroko  
hizkerak gaur  
egun euskararen  
kasuan galdu  
edo galtzear  
dauden formak  
izan daitezke.  
Gure gazteek,  
kasu baterako,  
euren hizkera  
propioa  
erabiltzeko  
erdarara jotzen  
dute edo,  
bederen erdal  
mailegu asko  
erabiltzen  
dituzte»

Lehen esan dugu ia-euskaldungoa deritzan *Hiztuntaldea* guztiz aldakorra dela. Irudian agertzen denez, azken urteotan (86-88) erdaldungoarenganako joera nabarmena antzeman dakioko, hau da, espero zitekeenaren kontrakoa. Irudian bi zirkuluaren arteko geziak meheak eta antzekoak direnean (1 eta 3 artekoak) zorizko errorean eragina soma dezakegu, zorizko errorea, beste aldetik ebitaezina baina populazio-mailan orekarantza jotzen duena, hots, geziak ez dute inolako joerarik adierazten. Bestelakoa da geziak diferenteak direnean, kasu horretan erroreak egon daitezke, bai, eta ez zoriak eraginikoak, guk kontrolatzen ez ditugun faktoreek eragindakoak baizik; horretan (2 eta 3 artekoak) holako edo halako joera dagoela esan dezakegu. Gakoa arazo metodologikoan datza, neurketa-arazoan alegia.

Zein da bada hizkuntz egoeraren errealitatea? Euskaldungoari ez dugu uste oso urrun dabilkionik. Dena den guk beste hiztun-sailkapenen bat erabiltzekotan sailkapen osatuago eta landuago bat aukeratuko genuke.

Guretzat euskaldungoa eta erdaldungoa baino ez dago, tarteko talderik ez dago; baliteke subjektuaren bat edo beste euskalduntze edo erdalduntze-prozesuan izatea baina, azken finean horiek ez dute egoera horretan luze iraungo. Hizkuntzaren euskarriak hiztunak badira, eta horrelaxe dira, dira ala ez dira ez bait daukate luze irauterik. Euskalduntzear dauden erdaldunak kontrolatzea oso interesgarria da, jakina, baina horrek ez du esan nahi euskaldunak direnik, erdaldunak baino.

Euskaldunak edo Euskaldungoa edota antzerako hitzak erabili izan badira ere, hizkuntz egoera kontutan harturik euskararen *hiztun-taldez* aritzea zehatzagoa delakoan gaude. Azken finean edozein ikerketa edo azterketa egiten dugunean zehaztasuna eskatzen bait dugu, hau da kontzeptuaren interpretaziorik argiena, sinpleena eta onartuena izatea. Hori horrela, hizkuntza (euskara) erreferentzia delarik, zein erizpide hizkuntza

bera baino hoberik? Hortaz, euskararen hiztunak sailkatzeko bi aldagai erabili ditugu: ama-hizkuntza eta beste hizkuntza baten ezagutza-maila, erdararena. Proposatutako sailkapena eta kode adierazleak ondorengoak izango lirateke:

VII. TAULA:

HIZTUN TALDEAK	Euskara Soilik	Euskara Lehena	Euskara eta Erdara	Euskara Bigarrena
ELEBAKARRAK	Erdaldun hutsak	—	—	—
ELEBIDUNAK	-----	Jatorrizko euskaldun elebidunak	Jatorrizko ELEBIDUNAK	Jatorrizko erdaldun elebidunak
HIZKUNTZEN ARTEKO ERLAZIOA	Euskara hizkuntza bakarra	H1 = euskara H2 = erdara	Ha & Hb Euskara erdara	H1 = Erdara H2 = Euskara

Aurreko taula horretan ikus daiteekenez lau *hiztun-talde* diferente dago, nahiz lehenengo zutabeen sailkapenik sinpleena agertu —euskaldun/erdaldun—, baina egun euskaldun elebakarrak desagertuzat jo ditzakegunez gaurko euskaldunak elebidunak izango lirateke. Ez dugu esango hiztun osoak diren ala ez; une honetan ikerketa eta azterketetan erabili behar den terminologia zein den adieraztea interesatzen zaigu.

Taulako azken lerroetan agertzen denari buruz zeozer esaterakoan honako hau esango genuke: ez da, hala-beharrez, euskara beti bigarren hizkuntza izan behar, ezta erdara ere, erabilitako aldagaiaren arabera erabakia izango da. Gu geure aldetik elebidunen artean agertzen diren euskararen *hiztun-taldeak* elkarren artean diferenteak izan daitezkeelakoan gaude, are gehiago, erizpide horiei lotuko gatzazkie ondorengo azterketak egitera-koan.

Euskararen *hiztun-taldeen* sailkapen konplexuago hori azaltzeko adierazpide grafikoari helduko diogu berriro ere. Irudian darabilguna, adinaren arabera bereizketa,

*«Gazteen artean jatorrizko euskaldunen proportzioa gero eta txikiagoa delarik euskararekiko berezko joera galtzen da eta baita adin-tarteari legokiokkeen euskal hizkera berezia»*

«Euskal talderik  
jendetsuenak  
(20-39 adin  
tartekoa) bere  
adin-  
taldekoekiko  
pisurik  
txikienekoa  
izanagatik  
euskaldungoaren  
laurdena baino  
gehiago  
suposatzen du»

adituek proposaturikoa baino ez da, zehatz mehatz honako hau:

A. *Jatorrizko edo aldibereko elebidunak*: 0 - 2'5 urte bitartean bi hizkuntza ikasten dituztenak.


B. *Elebidun goiztiarrak*: bigarren hizkuntza 2'5 - 10'5 urte bitartean ikasten dutenak.

C. *Nerabezaroko elebidunak*: bigarren hizkuntza 10'5 - 18 urte bitartean ikasten dutenak.

D. *Elebidun berantiarrak*: bigarren hizkuntza 18 urtetik aurrera ikasten dutenak.

Kualitatiboki *hiztun-talde* diferenteak direla frogaturik dago eta Elebidun Berantiarren artean nahiko zaila izaten da jatorrizko hiztunaren mailara ailegatzea, hau da, horien ezagutza-maila edota hizkuntz gaitasuna ez da jatorrizko hiztunarena bezain ona izaten.

V. ADIERAZPIDE GRAFIKOA



*Euskararen Hiztun-taldeak:* Irudian adina eta amahizkuntzaren araberako hiztun-taldeak adierazi nahi izan ditugu, hots, gure kasuan euskararen hiztun-taldeak. Ikus daitekeenez goi-eskuinaldeko hiztunak, errekoadro batean agertzen direnak hain zuzen, ez dira izatez euskararen hiztunak. Kualitatiboki laukiluze bakoitzak adierazten dituen hiztunak diferenteak direlakoan gaude.

«Haurtzaro  
goiztiarreko  
erabilpenak  
euskararekiko  
berezko joera  
bermatzen du  
eta, ondorioz  
nerabezaroan  
aurreko  
baldintza horiek  
betez gero  
erabilpen maila  
altua ziurtaturik  
dago»

Erdararen itsasoan murgildurik eta datu zehatzik ezean euskaldun hutsak (1. taldea) eta euskal elebidun berantiarrak (2. taldea) ito direlakoan gaude, 60 urtetik beherakoen artean behintzat. Hirugarren taldekoak (nerabezaroko euskal elebidunak) desagertu ez badira itolarrian daudela seguru gaude. Gainerantzeko taldeak bizirik daude baina, eta hau da garrantzitsua, *aldaketarik ez bada, 1., 2. eta 3. Hitzun-taldeak ez dira etorkizunearn sekula berragertuko.*

Horiek horrela, errealitatean euskararen *hitzun-taldeak* bost baino ez dira: euskal elebidun goiztiarrak, jatorrizko elebidunak eta gainerantzeko erdal elebidunak, 6., 7. eta 8. taldeetakoak.

Azkenean, bazen garaia, euskararen (ahozko) erabilpenaz mintzatuko gara, eta horretarako orain arte esandakoari ñabardura bat erantsi nahi genioke, hizkuntzaren ezagutza-maila bezain inportantea izan daitekeena: subjektuaren hizkuntz eboluzioa alegia.

Adin-tarte bakoitzean hizkera berezia erabiltzen omen da. Haurtzaroko eta Nerabezaroko hizkerak ikergai izan dira inoiz, gaur egun euskararen kasuan galdu edo galtzeaz dauden formak izan daitezke. Kasualidadea ote? Gure gazteek, kasu baterako, euren hizkera propioa erabiltzeko erdarara jotzen dute edo, bederen erdal mailegu asko erabiltzen dituzte.

Euskararen erabilpena definitzen duten aldagaiak aztertzerakoan esanguratsuen eta auresalerik finena ERABILPENA bera da. Honetan ez garela oso originalak, jakin badakigu, baina argitasunak ematen saiatuko gara. Irudiko 4. taldekoek haurtzaroaren hasieran kasu guztietan *erabiliko dutela* begi bistakoa da, baliteke nerabezaroan euskararekiko berezko joera galtzea baina *gainerantzeko hitzun-taldeetan* (6., 7. eta 8.etan) prozedura kontrakoa da; izan ere ez bait dago ikasi artean euskara erabiltzerik. Holako kasuetan bai euskara ikasteko eta baita erabiltzeko ere euskararekiko jarrera hurbilkorra eta motibazioa ezinbesteko faktoreak izango liriateke.

Gazteen artean jatorrizko euskaldunen proportzioa gero eta txikiagoa delarik euskararekiko berezko joera

galtzen da eta horrekin batera baita adin-tarteari legokio-keen euskal hizkera berezia ere hizkuntz ordezkapen-prozesuari bidea zabalduz.

Hipotesi hori frogatu nahieran 1986ko datuetara jo dugu (Hezkuntza eta Euskara, 154. eta 155. or.) alde zurretik honako presuposituak ezartzen ditugularik:

\* 1939-1960 urte bitartean jaiotakoen artean ez ditu (estatistikoki) inork eskolak euskaraz jaso. Balizko salbuespenak ez dira esanguratsuak eta edonolaz ere eskola bidez elebidun goiztiarrak izango lirateke.

\* 1960tik gaurdaino, eskola medio, euskaldun orok 14 urte bete baino lehenago *gaztelera ikasi behar* du, hau da, elebidun goiztiarrak izatera behartuta daude.

Horiek horrela, lehengo irudia gogoan dugularik zenbakitan honela adieraziko genuke euskal *hiztun-talde*en errealitatea:

VIII. TAULA:


ADIN TARTEA	Euskaldungoaren banaketa adin taldeka	E.A.E.ko OSOAREKIKO PISUA	Euskaldungoaren pisua adin tarte bakoitzean
2 - 9	12'38	3'04	26'92
10 - 19	17'61	4'33	24'75
20 - 39	28'27	6'95	22'16
40 - 59	22'48	5'53	22'49
=> 75	19'26	4'74	31'13
GUZTIRA	100'00		

Bi eta bederatzi urte bitarteko taldea da populazioarekiko pisurik txikienetakoa duena, baita euskaldunen artean ere. Gaztetxoenen artean bestalde, euskarak erdarari irabazten dio, euskaldunon proportzioa laurdenekoa baino handiagoa delarik. Euskal talderik jendetsuenak (20 - 39 adin tartekoa) bere adin-taldekoekiko pisurik txikienekoa izanagatik euskaldungoaren laurdena baino gehiago suposatzen du.

*«Zoritxarrez euskal hiztunen artean jatorrizko euskaldunek gero eta pisu txikiagoa izanik laister batean haien eragina euskararen erabilpenean hutsaren hurrengoan gera daiteke»*

Gainerantzeko interpretazioak irakurleari utziko dizkiogu; orain, esan duguna ondorengo irudian isladatzen saiatuko gara. Marraturik agertzen den aldea erdaldun hutsei dagokie, hortaz *hiztun-taldeak* zertxobait diferenteak dira, existitzen ez direnak ezabatu bait ditugu. Euskal hiztunari dagokiolarik eta zenbaki handienei begira azken 50 urteotako euskaldunak *elebidun goiztiarrak direla* esango genuke.

ADIERAZPIDE GRAFIKOA (VI.)





Euskararen erabilpena ezagutza-maila eta hizkuntz eboluzioari loturik dago; haurtzaro goiztiarreko erabilpenak euskararekiko berezko joera bermatzen du eta, ondorioz nerabezaroan aurreko baldintza horiek betez gero erabilpen maila altua ziurtaturik dago. Zoritzarrez euskal hiztunen artean jatorrizko euskaldunek gero eta pisu txikiagoa izanik laister batean haien eragina euskararen erabilpenean hutsaren hurrengoan gera daiteke.

Euskararen berreskurapenerako berreuskalduntzea funtsezkoa da baina hori bezain garrantzitsua da hiztunen berezko garapena ere.

Etengabe luza gintezke datuak eta irudiak ematen baina inoiz amaitzeko ordua ailegatzen denez honi ere iritsi zaio. Halaz ere ez genuke amaitu nahi zenbait aipamen berezi egin gabe.

Lehena datuei dagokiena, eta hortaz interpretagarriak dira. Guk erabili ditugunak E.A.E.koak izan dira baina Nafarroan metodologia eta prozedura bera erabiltzen dutenez hemen esaten denaz han ere aplikagarria da. Iparraldean tamalez ez da hemen egiten den neurketarik egin, hobe esanda, egiten den oro estimazioa baino ez da.

Bigarren aipamena artikuluaen edukinari lotzen zaio. Gure asmoa datuak agertzea baino horien atzean egon daitekeena izan dugu helburu, hau da, datuen berrirakurketa proposatzen dugu eta, bide batez zenbait terminologi aldaketa. Egun jarreraz eta motibazioaz hitz egitea modan dagoenean hizkuntzarekiko berezko joerak izan dezakeen garrantzia azpimarratu nahi izan dugu. Hori izan daiteke gure ustez ekarpenik nabarmenena. Azken finean hizkuntzarekiko berezko joeraren galerak, teorien bederen, euskararen erabilpen-eskasia beste edozein faktorek baino hobeto azaltzen bait du. Dena den hizkuntzarekiko berezko joera eta motibazioa edo hizkuntzarekiko jarrerak ez dira elkarren kontrajarriak, baina suerta liteke motibaziorik gabeko berezko joera zenbait ikerketatan ikusi den bezala edo, eta inoiz behatu izan da, euskararekiko jarrera epela izan arren hizkuntzarekiko berezko joerak dela bide euskararen erabilpena handia izatea.

*«Euskararen  
berreskurapene-  
rako  
berreuskaldun-  
tzea funtsezkoa  
da baina hori  
bezain  
garrantzitsua da  
hiztunen berezko  
garapena ere»*

Oharrak:

1.- (1.989) *Hezkuntza eta Euskara*. EUSTAT. Gas-teiz, XIX. or. Horretan oinarritu gara definizio horiek emateko.

2.- *Soziolinguistikazko Mapan* bertan esaten da: '.../... jakina denez, familiako batek edo batzuk etxekoei buruz emandako erantzunez hornitzen da Erroldako informazioa; hori era egokia izan daiteke zenbait datu soziobiografiko eskuratzeko, baina bakoitzaren hizkuntz gaitasuna zehazteko desegokia izan liteke. Gainera, oso zaila da, ia ezinezkoa, Erroldako datuetan soilik oinarrituta herritarren ahozko, irakurmen eta idazmen trebetasun-mailak ateratzea; beraz, abiaburuko informazioa —dagokionaren benetako lankidetzanahia kontutan hartuta ere— gutxienez konplexua da, eta horregatik arreta handia eskatzen du.' (*Soziolinguistikazko Mapa*. 1.989, 253. or.)

3.- «Inkesta hau Erroldaren egikaritzako eragiketa paralelo moduan proiektatu zen 15.000 etxebizitza familiarreko lagin batekin, Euskadiko K.A. osoan zehar banatuta, eta barnehartuz etxebizitza hutsak eta denboraldikoak. Era honetan 45.000 pertsona ingururen datuak bildu ziren. Etxebizitza hauei aplikatu zitzairen Errolda-Orrietan oinarritutako galdesorta familiarra. Konparazioaren interesa kontutan izanik, Inkesta egiteko hartu ziren kondizioak errolda-berrikuntza egiteko erabilitakoekin ahalik eta homogenoenak izan ziren, sekzio batean Errolda-lanak bukatu ondoren eginez elkarrizketa.» (*Demografiako eta Balidazioko Inkesta. Erroldaren Balidazioa*. EUSTAT 1990. XX. or.)

4.- «Eta grafiko hauetan, zirkuluek, inkestan modalitate bateko guztizkoaren aldean bi iturrietan modalitate berari erantzuten dioten pertsonen portzentaia adierazten dute. Geziek, aldaketen pisua eta modalitate batetik besterako norabidea seinalatzen dituzte. Inkestan modalitate hori hartzen duten pertsonen guztizkoari buruzko portzentaia bezala neurtuta. ....»

«Oharteman behar da, berberki, zirkulu eta gezien tamaina handiago edo txikiagoak, kontsistentziak eta aldakuntzak modalitate horretan duten garrantzia adierazten duela, baina kontutan hartu behar da, baita, ezaugarriaren guztikoari buruz modalitate horretan aurkitzen den pertsona-kopurua ere. Esan nahi bait da, grafiko hauen analisisan, erasanak gertatzen diren pertsonen kopurua hartu behar dela kontutan. Eta gainera dezagun, 5 modalitate edo gehiagoko grafikoetan ez direla seinalatu % 1etik beherako aldakuntzak». (Demografiako eta Balidazioko Inkesta. Erroldaren Balidazioa -1990- XXII. or.)

Xabier Isasi Balanzategi

UPV/EHUko Irakaslea